



ESPAINIAKO ETA NAFARROAKO HISTORIA

A AUKERA EDO B AUKERA HARTU, ETA OSORIK EGIN

A AUKERA

1. ZATIA. DEFINITU ONDOKO TERMINO HAUEK Gehienez: 3 puntu

- a) *Erromanizazioa* b) *Kordobako Kalifatua* c) *Nafarroako Gortek*
d) *Lepanto* e) *Espainiako ondorengotza-gerratea*

2. ZATIA. TESTU HISTORIKOA: 1931ko Konstituzioa.

1. artikulua. Mota guztietako langileak dituen Errepublika demokratikoa da Espainia. Askatasun eta Justizia erregimenean antolatzen da.

Organo guztien botereak herrian du jatorria.

Errepublikak Estatu integrala osatzen du, udalerrien eta eskualdeen autonomiarekin bateragarria (...).

2. artikulua. Legeari begira, espainiar guztiak berdinak dira.

3. artikulua. Espainiako Estatuak ez du erlijio ofizialik.

8. artikulua. Egungo lurraldearen ezin murriztuzko mugen barnean, ondorengo hauek osatzen dute Espainiako Estatuak: probintzietan elkartutako Udalerriek eta autonomia erregimena duten eskualdeek. (...)

12. artikulua. Eskualde autonomoko Estatuak onartzeko, hurrengo baldintza hauek bete behar dira:

1. Udal gehienek proposatzea (...).

2. Eskualdeko hautesle eroldan izena emandakoen bi herenek, gutxienez, (...) onartzea. (...).

3. Gortetan onartzea (...).

26. artikulua. Erlijiozko konfesio guztiak lege berezi baten mendeko Elkarte gisa hartuko dira.

Estatuak, eskualdeek, probintziek eta Udalerriek ez diete eutsiko, mesede egingo edo ekonomikoki lagunduko ez Elizei, ezta erlijio Elkarte eta Erakundeei ere.

Lege berezi batek arautuko du kleroaren aurrekontua erabat bertan behera uztea, gehienez ere bi urtean.

36. artikulua. Hogeita hiru urtez gorako bi sexuetakoa herritarrek hauteskunde lege berberak izango dituzte, legeek zehazten duten bezalaxe.

Espainiako Errepublikaren Konstituzioa. (1931ko abenduaren 9an).

Aztergaiak	Gehienez: 3,5 puntu
a) Kokatu testua bere testuinguru historikoan.	Gehienez: 2,5 puntu
b) Aipatu 1931ko Konstituzioan jasotako Lurralde-politikaren ezaugarri batzuk.	Gehienez: puntu 1
3. ZATIA. SINTESIA: FERNANDO VII: ABSOLUTISMOA ETA LIBERALISMOA	Gehienez: 3,5 puntu



ESPAINIAKO ETA NAFARROAKO HISTORIA

A AUKERA EDO **B AUKERA** HARTU, ETA OSORIK EGIN


B AUKERA

1. ZATIA. DEFINITU ONDOKO TERMINO HAUEK Gehienez: **3 puntu**

- a) *Megalitismoa* b) *Birkonkista* c) *Tordesillasko Ituna*
d) *Nafarroako Erresumaren Diputazioa* e) *Merkantilismoa*

3. ZATIA. GRAFIKOA: *Batzar Konstituziogilearen osaera 1869an (diputatu kopurua).*

Batzar Konstituziogilearen osaera 1869an (diputatu kopurua).



- | | | |
|----------------------------|--------------|---------------------------|
| ■ Progresistak | □ Unionistak | ■ Errepublikano federalak |
| ■ Demokratak | ■ Karlistak | ■ Isabeldarrak |
| ■ Errepublikano unitarioak | | |

Iturria: VV. AA. *Introducción a la Historia de España*, 1974.

Aztergaiak	Gehienez: 3,5 puntu
a) Grafikoa deskribatu.	Gehienez: puntu 1
b) Grafikoa interpretatu.	Gehienez: 2,5 puntu

3. ZATIA. SINTESIA: <i>ESPAINIAKO GERRA ZIBILAREN ONDORIOAK</i>	Gehienez: 3,5 puntu
--	----------------------------